**BERTSOZALE ELKARTEKO HEZKUNTZA-AISIALDIKO JARDUERETAN PARTE-HARTZEARI, INFORMATZEKO BETEBEHARRARI ETA BAIMEN INFORMATUARI BURUZKO BALDINTZAK ONARTZEKO DOKUMENTUA**

Entitate honek gauzatuko du jarduera: EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA
Proposatutako jarduera: BERTSO UDALEKUAK
Data: 2021EKO UZTAILA

Irakurri arretaz onartu beharreko parte hartzeko BALDINTZAK hemen sakatuta

Nire erantzukizunpean adierazten dut goiburuan agertzen diren datuak dituen pertsonak (interesduna) adierazitako entitateak gauzatuko dituen jardueretan parte hartu dezala eskatzen dudala. Horretarako, entitateak berak eskuragarri jarritako informazioa arretaz irakurri dut eta parte hartzeko baldintzak onartzen ditut, nire konpromisoa adierazten dut nahitaezko higiene- eta prebentzio-neurriak betetzeko eta nire gain hartzen dut COVID-19arekin kutsatzeko aukeraren erantzukizun erabatekoa.

- Erantzukizunpeko adierazpena, arrisku-taldekoa ez dela eta arrisku-taldeko ezein kiderekin ez dela bizi dioena.

  ☐ Adierazten dut interesdunak betetzen dituela parte-hartzeari, informatzeko betebeharrari eta baimen informatuari buruzko baldintzak onartzea eskatzen den planteamenduan onartua izateko adierazitako baldintzak, eta ez dela arrisku-taldekoa.

  ☐ Adierazten dut interesduna ez dela arrisku-taldekoa den inorekin bizi, edo hala izanik ere, bere erantzukizunpean hartzen duela parte jardueran.

  ☐ Konpromisoa hartzen dut osasun-egoera egunero jakinarazteko, eta bertaratzen ez bada, arrazoia jakinarazteko (eskuko telefonoaren edo beste bitartekoren baten bidez).

- COVID-19aren inguruko nahitaezko higiene- eta prebentzio-neurri pertsonalen dokumentua onartzea.

  ☐ Irakurri ditut eta onartzen ditut nahitaezko higiene- eta prebentzio-neurri pertsonalen planteamenduan adierazitako konpromisoak. Jarduera COVID-19ra egokitzeari buruz erakundeak helarazitako dokumentuak irakurri eta onartu direlako adierazpena.

  ☐ Adierazten dut jaso eta irakurri ditudala jardueraz arduratzen den erakundeak jarduera COVID- 19ra egokitzeko prestatutako planteamendua, eta, beraz, proposatutako neurriak eta prozedurak ezagutzen ditudala eta ados nagoela.

  ☐ Adierazten dut jaso eta irakurri dudala jardueraz arduratzen den erakundeak larrialdi-egoeretarako eta kutsatze-arriskuaren inguruan prestatutako planteamendua: COVID-19ari buruzko baimen informatua.

  ☐ Adierazten dut jakitun naizela, aurreko dokumentuetan adierazitako informazioa jaso eta arretaz irakurri ondoren, zer arrisku dituen, bai beretzat eta bai berekin bizi diren pertsonentzat, interesdunak COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren testuinguruan jardueran parte hartzeak, eta nire erantzukizunpean hartzen dudala arrisku hori.